



Txirriena

etxebizitza

Aldacrak: Kotxeragoikoa
Ahozkoa: Txirridxena

*“... la casería rústica titulada
Cochera de arriba, sin nume-
ración, situada en la Cofradía
o barriada de San Lorenzo
jurisdicción de la Anteiglesia
de Berriz, que comprende trece
estados, equivalentes a cuarenta
y nueve centiareas...”
DJE 1/244 or. (1866)*



43°10'38"

2°34'49"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza bateko baserri honen gaineko aipame-
nik ez dugu aurkitu; baina jabego-erregistroan
aurkitutako informazioaren harira, badirudi
Cochera de arriba hau jauregiarekin erlazionatuta
dagoela, eta *Berriz* (**Ikus Berriz**) jauregiaren
parkearen beheko partean zegoen *Cochera* (**Ikus
Cochera**) delakoarekin batera jauregiaren bi
eraikin gehigarriak zirela. Berriztarren artean,
aldiz, ahoz-kotasunean beti *Txirridxena* moduan
ezagutu izan da.

Elkarren hurrengo dauden hiru gorputzez osa-
turiko etxea da, estu-estua duen alturarako, na-
hiz eta bakarrik behekoa eta lehengo solairuak
baino eduki ez. Harlangaitzaz altxatutakoa
bada ere, kantalak, ateak eta leihoak harlan-
du ederraz inguratu ziren. Beranduago leiho
berriak zabaldu dituzte, zurezkoak, eta ater-
n bati aterpea egin diote. Batasun itxuraren os-
tean, oraindik igarri daiteke zein den lehenengo
egindakoa, erdikoaren ateburuak etena egiten
baitu bidea kontran dagoen etxearen kantale-
kin. XIX. mendeko etxea dela esango genuke.

toponimia

Herrian dagoen herri etimologiak gurdiek eta ibailgailuek egiten zuten zaratarekin "txirriarekin" lotzen badu ere, pentsa
genezake bertako inori deitu zutela Txirri horrexegatik, zaratarengatik, -ena atzizkia pertsoan izenei gehitzen baitzaie.